

Karkara

karkara.eus

❖ Orioko eta Aiako aldizkaria • 2018ko maiatzaren 25a • 395. zenbakia

Bidean da Benitoren lan berria



Benito Lertxundik estudioko atea zabaldu digu.
Udazkenean argitaratuko da bere disko berria: *Ospakizun gauean*.

07

Herrian galdezka
Nazioarteko Estropadak

26

Turismoa
Aia, bestelako jomuga

30

Merkataritza
Cristina Salsamendi

34

Kultura
Euskaraldiko hamalaukoa



obrak
proiektuak
errehabilitazioak
txostenak
eraikuntza zerbitzuak
ITEak
eraikinen mantenua

borja agiresarobe lopetegi 6 3 5 7 3 1 7 2 2
heriko-barra 1, beheko 9 4 3 1 3 4 3 5 8
20800 zarautz xs@xsarkitektura.com

www.xsarkitektura.com




- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoien instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta dutxa jartzea
- Gremioen koordinazioa, dekoratzailea
- Zoru erradiatzailea

zerbitzu teknikoa
24 ordu

www.fontaneria-fontana.com

fontana
iturgintza

ITURGINTZA · GASA · BEROGAILUAK

Plaza Endaia n°1, 20810 - Orio
fontana-ju@hotmail.es
661 262 828

urbide
iturginak s.l.

Iturgintza - Berogintza

Bizkaia Kalea, 4
20800|Zarautz
943 890 069
urbideiturginak@gmail.com
www.urbide.es



Orioko
Herri
Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8
TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38
orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net



Sagasti
LEIHOAK

Tel. 943 13 00 77 - Fax 943 53 71 50
sagasti@sagastileihoak.com
Arrantzale kalea, 65
20810 Orio

Roberto Sagasti

Kalitatezko materialak
PVC eta aluminioa · Isolamendu termiko eta akustikoa
Salmenta osteko zerbitzua

www.sagastileihoak.com

Izaskun Estankoa

- Tabakhoa
- Prentsa
- Eskola materiala
- Opariak

Astelehendik ostegorero
8:00-13:15 · 17:00-20:00
Larunbatetan eta igandetan
8:00 - 13:30

Eusko Gudari, 23-20810 Orio - Tel.: 943 831 212




IZARRA ELEKTROGAILUAK

SUKALDEAK NEURRIRA

LEDREFRIGERATOR
1499€
1119€

Washing Machine
645€
399€

TiEN 2i

Eusko Gudari, 44-Telf. 943 83 38 81-20810 Orio (Gipuzkoa)

ZINKU
ERAIKUNTZAK

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzaren erreformak
- Teilatuak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

deitu eta eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe

Ander Zinkumezi
667 740 279

garay
manufacture

**SUKALDEAK
PROIEKTUAK
ERREFORMAK**

www.garay.eus

Olabidea aldea 1
(Errotaberri industrialdea)
20.800 Zarautz

943 13 31 09

395

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea
20810 Orio
943 83 15 27

karkara@karkara.com
www.karkara.eus

Editorea

Karkara taldea
kultur elkarte

Erredaktore burua

Ainara Lasa

Erredakzio taldea

Jon Agirresarobe
Onintza Aiestaran
Olatz Artola
Iñigo Exposito
Iñigo Gaiton
Jon Garate
Miriam Garcia
Elizabete Manterola
Intza Unanue
Rikardo Uzkudun

Publizitatea

Sonia Albizu

Zenbaki honetako kolaboratzaileak

Jon Alonso
Xabier Etxeberria
Iñaki Iturain
Haritz Hernandez,
Jabier Zabaleta

Diseinua

Saioa Perona

Banatzaileak

Endika Ruiz (Orioko)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.450 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren edota iritzien erantzukizunik. Karkaran argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada

TOKIKOM

**LAGUNTZAILEAK:**

Aiako Udala



Orioko Udala

Gipuzkoako
Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Hasi bertsotan atalean puntuka arituko dira bertsolariak. Oraingoan Ainhoa Mateosi jarri dio puntua Lukene Lizasok: *Azken aldian dago Orioko bertsozale*. Hurrengoari ere eman dio bertsotarako gaia.

PUNTUA JARRITA**AINHOA MATEOS** (DOINUA: BALEAREN BERTSOAK)**1****Azken aldian dago Orioko bertsozale,**

ni ere aspaldi naiz bertsotan maitale. Kulturak loratzen du herri eta kale, euskara bizi-bizi daukagun seinale.

2

Gaztetzeko kuadrila nahiko nuke aipa, ahalduntze lanean baitaude hasita: bost emakume oholtzan tartean Rosita, ea bilakatzen den urteroko zita.



Joan den apirilean Arkaitzpe elkartean egindako bertso afaria. KARKARA

Hurrengo bertsolaria:

Aitor Arregi

Puntua:

Aia aldean bada makina ekintza.

1968-2018. Orio, Nazioarteko Estropadak

Berrogeita hamar urte. Hamazazpi edizio osatu dira. Tarteka-tarteka Oria Ibaia nazioarteko arraunlariz blaitzen da. Arrauna modu integratuean maite dugunontzat egun zorionsuak horiek.

Bertan, arraunketa olinpikoa den aulki mugikorreko arraunlari maila bikainekoen ahaleginaz gozatzeko aukera eskaintzen zaigu. Eskertze-koa da arraun elkarrekin egiten duen lan oparoa horrelako ekitaldiak antolatzeke garaian.

Ez da batere erraza kanpotik maila handiko taldeak ekartzea. Gaur egungo egutegi ofizialak direla, egoera ekonomikoa dela, edota gure artean modalitate honek daukan jarraipen eskasa dela, zaila da, baina noizbehinka lortzen da.

Aurtengo edizioa bikain joan da. Eguraldia ederra. Oria Ibaia bere edertasuna erakutsiz. Arraunlariak goi-mailako estropada eskainiz. Oriotar neska-mutilak ere oso fin ibili dira. Mutilak irabazle izateko aukerarekin gainera, ez ziren urruti ibili.

Kanpotarrek oriotarrekiko bere esker-ona adierazi dute estropada ondorengo adierazpenetan. Eskerririk asko guztiei! Ea ba aurtengo edizioa etorkizunetako abiapuntu sendoa izaten den. Oriok, arraunketa elkarrekin, Oria ibaiak... merezi dute.

• **joxemari Olasagasti.**

Danbolinfest

Pasa den maiatzaren 12an Musika Eskolaren eguna bihurtu den Danbolinfest ospatu genuen. Hitzak dion bezala, festa egun bat izateko sortutako eguna, musikaz eta dantzaz herria alaitzeko jardunaldia. Gure geletatik atera eta egiten duguna kanpoan erakusteko proposa.

Bertara gerturatu ziren haur, guraso eta herritar askok argitu zuten goibel esnatu zen eguna, berriz ere

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo erre-dakziora eskura ekarri -Orioko edo Aiako Kultur Etxean- edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizena-ekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

erakutsiz Orion badela dantza eta musikarako zaletasuna.

Badakigu zein diren horrelako egun bat antolatzeak eskatzen duen lana eta buruhaustea. Baina badakigu ere, beharrezkoa dela, horrelako ekintzak egitea, kalera atera eta eguneroko klaseak, entseguak, etxean egindako lanak zertarako balio duten balioan jarriz. Musika eta dantza egin, beti gozamenetik.

Amaitzeko, eskerrak eman Danbolin Musika Eskola aurrera eramatean laguntzen diguzuen ikasleei, gurasoei eta udalari, musikarako eta dantzarako dugun ilusio eta konpromisoa erakutsi eta zabaltzeko aukera emateagatik.

• **Danbolin Musika Eskola.**

Oinezkoentzat, denontzat

Larunbata. Arratsaldeko 17:00ak. Uda bero sargoria. Plazako txapelaren gerizpean banku guztiak hartuta. Batean bi amona gazte garaiak gogoratzen. Bestean bi aitona bezperako arraun-entrenamendua errepasatzen. Bestean guraso bi eta umeak *atarrapuka* lurrean....

Baloiarekin jolasean optikaren aurrean ume koskor koadrila. Terrazetan eguzkitan jende mordo. Elizako aldapan behera erromesak motxila handiak bizkarrean dituztela. Moila

gainean ilara eginda txutxu trenan noiz etorriko zain jende mordo. Eta haur eta gazteak koadrilaka murgil erriora, txanpon bila edo elkarri harropaketetan.

Herri bizia, herri lasaia. Denontzat espazioak eta guneak dituen. Jende pilaketarik gabea. Bizikletan ibiltzeko, uretako ekintzak egiteko, mendira joateko, haurrak parkean jolasteko edo lasai egoteko espazioak dituen. Horrelakoa da gure herria. Maite dugun herria eta nahi duguna. Eta kanpotar asko baita ere *katiatzen* ari duena.

Zergatik hartu kontrako erabakiak bidea egiten hasi garenean? Bidea oinezkoek hartu dugunean? Egun eta erdiz bederen.

• **Herrio natur taldea.**

Hondartza garbiketa... eta hamaiketako!

Orioko Surf Taldeko kideok, Herrio Natur Taldeko lagunekin batera, aurtun ere hondartza garbiketa antolatu dugu.

Datekin ohikoa baino atzeratuago gabiltzanez, eta hondarra garbitzeko lanak hasiak daudenez, batik bat hondartza inguruko arroak garbitzera bideratuko dugu aurtengo ekimena.

Maiatzaren 26an egingo dugu garbiketa, larunbatarekin, 10:30etik aurrera. Gero, urtero bezala, hamaiketako ederra eskainiko diegu bertaratzen diren guztiei. Etorri hondartzara, eta goiz pasa ederra egingo dugu!

• **Orioko Surf Taldea**

EKAINAK 10 Gizakatea. Eman eskua etorkizunari!

Orion 300 gara, 1.001 izan baietz!
Donostia eta Gazteiz, Bilbotik pasata,
lotuko dituen gizakateak 201,9 ki-
lometro izango ditu eta 1.001 oriotar
eta aiar izateko erronka dugu.

Herritarren artean etorkizunari
eskua emateko 2.019 arrazoi ibiltzen
ari gara.

Izen emate aukera hurbilenak
hauek dituzu: ikastolako plazoletan
maiatzaren 25ean, 16:30ean eta
maiatzaren 27an Kukuarrin eta
Plazan.

JAIOTAKOAK

- Thiago Ferrer Martinez, apirilaren 21ean.
- Luka Lertxundi Arana, apirilaren 29an.
- Uxue Garmendia Sudupe, maiatzaren 3an.

HILDAKOAK

- Esteban Moreno Nuevo, Orion, maiatzaren 20ean. 65 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:

943 83 15 27

Laguntzaileen kuotak

KARKARA proiektua sostengatzen duzuenoi laguntzaile kuotak ekainaren eta uztailean kobratuko ditugula jakinarazi nahi dizuegu. Eta, eskerrak ere eman nahi dizkiegu babes emateagatik. Zuen laguntzagatik ez balitz, ezingo genuke egunero webgunea elikatu ez ezta hileroko paperekoa argitaratu ere. Eskerrik asko proiektuaren parte izateagatik!

JATETXEA
Galerna



Antillako
Hondartza 5
20810-Orio
Tel.:943 89 04 16

egin zaitez laguntzaile



Karkara
karkara

URAITZ
Lurrindegia
jantzi-argariak



Endaia,3 Tfixa: 943 83 18 97

BODEGAS
Gailur



01307 BAÑOS de EBRO
Tel./Fax 945 60 91 58
www.bodegasgailur.com
Arabar Errioxa

ZUDUGARAI



Gelariako Txakolina

Tel. 943 83 03 86
Fax 943 83 59 52
bakolizudugarai@euskalnet.net
www.bakolizudugarai.com

Bodak
2018/2019
ROSANA
-ARGAZKI ESTUDIOA-
fotorosanaarruti@gmail.com
teli: 943 83 58 45





Benito Lertxundi eta Amaïur Cajaraville, Elkar estudioan. IÑIGO GAITON



Orioko futbol taldeko kadete neskek, gola ospatzen. KARKARA



Jendetza kultur etxean, peatonalizazioa hizpide hartuta. KARKARA

Maiatzean, aretoak leporaino

Benito aldizkariko azalean, beste behin. Disko berria grabatzen ari zela jakin bezain pronto, aldizkarian tarte zabala eskaintzea erabaki genuen. 76 urterekin abestiak egiten jarraitzen du. Sortzen. Kontzertu bikainak eskaintzen. Estudioko grabaketetan, barruraino pasatzen utzi digu. Gero, lan karga handiko egun batez, Salatxo tabernan gurekin luze egoteko astia hartu zuen. Mikelek eta Pakok esan bezala, *plazer bat izan duk guretzat ere!*

Mendibeltz maitea duela aitortu digu bardoak. Izen bera duen futbol zelaian, hain zuzen, denboraldia bikaina joan da. Orioko futbol elkarteko bi taldek mailaz igotzea lortu dute, ez da makala gero! Tartean, besteak beste, Alguacil bat entrenatzaile. Herriko aguazilek, futboletik kanpokoek, badute nahikoa lan plaza aldean, jendearen zalantzak erantzuten: *asteburu honetan, azkenean, itxiko al da plaza ibilgailuentzat? Edo hurrengoan? Azkenean ez?*

Udalak herritarrak kultur etxean bildu zituen, gaiari buruzko iritziak jasotzeko. Gutxitan bezala bete zen aretoa, hura saltsa! Iritzi ezberdinak jasota, Udalak bere gain hartu zuen erabakia hartzeko ardura.

Gutxitan bezala ere leporaino, Udaleko batzar aretoa, eskola umeen literatur lehiaketan. Haur gehienak lotsatuta, eta gurasoak harro. Zorionak idazle eta marrazkilari gazteei!

Atzo Gabonetan geunden, eta datorren hila ekaina dugu, kolpetik etorri zaigu uda! *Kanpinero* batzuek barnealdean pasa beharko dute aurtengoa, eroritako harrien ondorioz. Batzuk udarik gabe eta beste batzuk sarrera faltan. Lasai, badugu erremedioa! KARKARAko *Ezetz eza-gutu?* atal *mitikoa* errekuperatu dugu, lehiaketatxo bat martxan jartzeko. Argazkiko lagunak nor diren asmatzen duzuenon artean, Akelarrerren kontzerturako sarrerak zozketatuko ditugu. Zorte on!

Nola bizi izan dituzu XVII. Nazioarteko Estropadak?



“Gogoan dut 68ko nazioarteko estropada”

Gogoratzen naiz Orioko lehenengo estropadaz, 1968an, aitak txapel horia eta zapia jarri zizkidan. Sekulako giroa izan zen egun hartan. Oxford eta Cambridgeko ontziek erakarrita, jende asko etorri zen herrira. Frankismo garaia zen, eta telebistan, lehenengo, futbola ez zen beste kirol bat eman zuten. TVEkoak etorri ziren Oriora, nazioarteko estropadaren berri ematera.

Orduan beste modu batera bizitzen ziren estropadak. XVII.edizio hau ere ondo joan da, baina 60ko hamarkadako haiek xarma berezia zuten.

Jabier Hernandez



“Txikitatik bizi izan dut arrauna etxean”

Eibarkoa naiz izatez, baina txikitatik bizi naiz Orion. Arrauna betidanik gustatu izan zaigu familian, eta Eibarko etxeko balkoian ez da sekula Orioko bandera falta.

Estropadak beti jarraitzen ditut gertutik. Kontxan ere izan ohi gara.

Nazioarteko estropadak ederrak iruditu zaizkit. Zubian egon ginen ikusten, eta giroa ezin hobea izan zen.

Gainera, eguraldi bikaina egin zuten, eta erria zein uretaratutako ontziak oso ederrak ikusten ziren bertatik. Egund on pasatu genuen.

Naia Lopez



“Hondarribian ez dugu horrelako afiziorik”

Lehen aldia da Nazioarteko Estropada ikustera etorri garela. Giroa apartekoa izan da, eta harrigarria egiten zaigu guri, Hondarribiatik etorrira, hemengo afizioaren inplikazioa ikustea. Gure herrian ez dugu horrelako afiziorik.

Oso interesgarria iruditu zait estropada; izan ere, Hondarribian ez dago ohiturarik aulki mugikorrek txapelketak antolatzeko. Eta estropada hau gaur gertutik bizi izana, oso ederra izan da guretzat. Gainera, emakumezkoek ere presentzia izan dute. Denek erakustaldi aparta eman dute.

Maria Luisa Amonarriz



Ubegun industriagunea, 4
Tel. 943 894 024
Fax. 943 130 144
20809 AIA - ORIO



edariategia
ANTILLA
jatetxea

Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 09

OROGA TXIKI S.L
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak · beira bikoitza
 · segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
 · ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

arkaitz taberna
 orio

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

Terraza ederrarekin giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943 831 657

ARISTERRAZU
 jatetxea

Andatza auzoa AIA
 Tel. 943 83 45 21

ETXeko BEREZITASUNAK
ARRAIN ZOPA
PARRILA

BODEGON SARRASUA
 ERRETEGIA

Eusko Gudari Kalea, 29-20810 ORIO · Tel.: 943 83 00 05

Gabon
 TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitaratekoak

943 83 06 09

Portu
ERRETEGIA

Santio Erreka Auzoa, zig
 943 89 44 34
 20809 AIA-ORIO

kazalitik, kaseriko oilaskan parrilako erretak eguneko menua.

KOLON TXIKI
 edariategia
 jatetxea

Herriko Enparantza, 4
 ORIO
 Tel. 943 83 00 44

ASADOR XIXARIO
 Eusko Gudarien Kalea, 2
 Tel. 943 830 019 - ORIO

kutixi
 kafetegia
 GOSARI GOXOAK

Aritzaga 9, 20810 Orio
 Tf: 943 13 15 17

SU KIA
 TABERNA · JATETXEA

On egin eta gero... hartu KOPA eta TOPA!!

- OILASKO ERREAK ERAMATEKO
- EGUNEKO MENUA
- EGUNKARIAK
- OGIA

Tf: 943 892 129
 ABAROMENDI 38, 1. BAXUA

KAFETEGI-OKINDEGI-GOZOTEGIA **GELATTO**

OGI BERRI

943 578 176
 Herriko enparantzan

lzozki naturalak Opilak

niko
 taberna

Karta · Pintxo tradizionalak
 Okindegia

Palota Kalea, 5 · 20810 Orio · Egin erreserba 943 53 61 27

HAIZE BERRI
 taberna-jatetxea-kafetegia

Plater konbinatuak, bokatak, hamburgesak, raziok, eguneko menua...

ostiraletan pintxo potea!!

eta etxera eramateko zerbitzua!
943 831 623
 Orioko kiroldegian, Erribera 1

ITZALA

kartetan jokatzeko proposa

tel. 943 83 12 59

PIZZERIA
KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10
 TELEFONOA: 943 24 89 46

Manadak



Eli Huegun

Twitterren #yonotecreo deritzon traola zabaldu da, irakurtzeko gonbita egiten dizuet. Goragalea eragin didaten artikuluak ere irakurri ditut.

Ezin dut *politikoki ez-zuzena* adiera horrekin euren zerrikeria mentala justifikatzen dutenekin. *Manadaren* ebazpena atera zenetik, apirilaren 26tik, zerbait mugitu da gu guztion barruan, batzuentzat alde batera, besteentzat bestera.

Sententziak frogatutzat jotzen dituen egitateetan esaten du bost gizonak euren nagusitasunaz baliatu zirela neska portalean sartu eta nahi izan zituzten sexu gehiegikeria guztiak egiteko, *indarkeria eta beldurtarazpenik gabe*. Ondorioz, abusua omen da, eta ez agresioa edo eraso. Eta honek sortu du zalaparta. Boto partikularrari buruz ez dut komentariarik egingo.

Bortxatzaileek nahita sortutako nagusitasun egoera horren ondorioz biktimak amen egin beste irtenbiderik ez badu, gutxienez intimidazioa badagoela ulertzen dugu askok. Sexu askatasunaren aurkako delituetan zigor kodeak erreforma behar duela ere aldarrikatu dugu, onesten falta hori gertatzeko egoeren artean ez dugulako desberdintasunik ikusten. Ezetz bada, ezetz da, ez dago besterik.

Ba honi lotuta, kaleak hartu dituen protesta horien kontra sekulakoak irakurri ditut.

Twitterren #yonotecreo deritzon traola egon da, irakurtzeko gonbita egiten dizuet. Goragalea eragin didaten artikuluak ere irakurri ditut.

Komentario ia gehienak logika berean laburbildu daitezke: kalera atera den jendeak juzgurik ez duela, haien morala besteek ezarria dela unean uneko ideia nagusiak inposatuz, eta noski, eurak ausartak eta politikoki ez-zuzenak direla masa horrek xurgatu ez dituelako.

Ba batzuen eta besteen egoerak erabat kontrakoak direlakoan nago, euren ideia *politikoki ez-zuzen* horiek sistemak berak aplikatzen dituenak baitira. Espainiar estatuan emakume batek bortxatua izan dela salatzen du 7 ordutik behin eta apirilaren 26tik *Manadaren* antzeko beste bi sententzia eman dira ezagutzera medioetan (abusua, ez agresioa).

Batzuk errealitate horien kontra altxa eta egoera aldatu nahi dugu, horrek ez dauka zuzentasun politikotik ezer. Politikoki ez zuzentzat deklaritzen diren horien atzean, aldiz, badago ideia nagusi bat, eta ez da ausardia hain justu: gizarteak ematen dizkien pribilegioak mantentzea baizik.

Nik garbi daukat zein den nire manada.

K.U.K.U.A.B.B.I
ELEKTRIZTATEA

Tel.943 100 181
Mobila 640 281 308
Zigordia, 52 - Behea C
20800 Zarautz
kukuarri@kukuarri.com

Ile apaindegia
MARIJO

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - behea
Tel. 943 13 47 29
ORIO

f Karela-Kiroldegia-Bpxport @KarelaBPX

Udararekin batera badator
UDA SASOIAN!

Hamabostaldia:
1º > UZT 2-13
2º > UZT 16-27
3º > UZT 30-ABU 10

KARELA kiroldegia

943 89 44 28

emakume arropa - neurri bereziak
kinkiladenda - barruko arropa

argine.

15eko deskontua familia ugarien txartelarekin

Eusko Gudari, 9 - Orio

943 134 889  argine/jantziak

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra,
denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu
konpromisorik gabe

Lan txukuna
eta merkea

Tfnoa: 943 83 59 00




ELEKTRIZITATEA

Ander Exposito

943 831 774

600 856 728

anderexpoelektrizitatea@gmail.com




Arrantzale kalea, 63 behea
20810 ORIO
Tel.: 943 83 36 45

Oria Hortz Klinikak **ORTODONTZIA**
zerbitzu berria jarri du martxan.
Prebentzioa ezinbestekoa dela
jakinda, hartu aurre etorkizunean sor
daitezkeen arazoel.

OREKA
FISIOTERAPIA

Tendinitisak
Lumbagiak
Artrosia
Zefaleak ...
Masaje terapéutikoa,
bentosak, akupuntura,
eskuzko terapia,
osteopatia

943 13 35 37
Aritzaga kalea, 11 behea



MENDIZABAL
ARROZTEGIA

Neurririko armairuak
eta egurlanak

943 831 175 Altxerri bidea
645 708 491 Beti-Alai etxea
mendi@aroztgi.net 20810 Aia-Orio



HIGIEZIN AGENTZIA - AHOLKULARITZA - ASEGURUAK

Ibai Ondo, 1

Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 132 941

informacion@garmendiagestion.com



PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TELF - 943 572 083
FAX - 943 571 190
i.asenjo@hotmail.es

INES ASENJO
ABESLARI, 1
20810 ORIO

libe
dietetika
elikadura aholkularitza

eusko gudariak 35 :: ORIO
[sarrera Arrantzale kaletik]

943 53 64 94 :: 697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com



URANGA

burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

Katu
HORIA
albaitaritza klinika

ESTROPALARI, 10
20810 ORIO
tel. 943 11 66 99

Larrialdia
668 89 11 29






"Emozio karga handia dute disko berriko abesti batzuek"

Sei urteren ostean, Benito Lertxundik **disko berria argitaratuko du udazkenean**. Bere diskografiako hamaseigarren lana da azken asteetan grabatu duena. Abesti berrien sorkuntza prozesuan *hunkidurak sentitu* dituela aitortu digu.



TESTUA ETA ARGAZKIAK: IÑIGO GAITON

Bi zita izan ditugu Benitorekin. Estudioan lehe-
na, grabaketa prozesu bete-betean. Salatxo ta-
bernan bigarrena, diskoa ixteko azken lanak ia
ia bukatzeaz zituela. Gainezka eginda dabilela
aitortu digu, eta *neurotiko xamar ere bai*, abestien azken
ñabardurei mila buelta ematearen ondorioz.

Grabaketak bukatuta, kantu berriak nahasten zabilzate egunotan.

Gogorra egiten zait fase hau. Estudioan modu batera en-
tzuten ditut abestiak, eta etxean beste tankera bat har-
tzen diet. Zaila da buruan dabilkidana azaltzea, guztia
sentsazio kontua delako. Halakoetan, neroni izaten naiz
nire buruaren kontrariorik handiena.

**Gustura al zaude kantu berriak grabatu dituzuen modua-
rekin?**

Hein batean, inbidia ematen didate estudioko lanak
amaituta asebeteta sentitzen diren musikariek. Eguno-
tan dudan sentsazio hau ez da berria; behin ere ez ditut
gustura bukatu estudioko lanak. Pentsa, gure azken dis-
koa, *Oroimenaren oraina*, argitaratu zenetik ez dut behin
ere entzun.

Benetan?

Bai, bai. Gero, irratian edo kanturen bat aditzerakoan,
nire golkorako pentsatu ohi dut: *Ño, ez zagok ba hain
gaizki...* Estudioan sartzen zarenean, hilabete iraun ohi
duen grabaketa prozesuan, erraza da lanean gehiegi mur-
gildu eta perspektiba galtzea. Oraintxe, gainezka eginda
nago. Kantu berrietan gehiegi sartuta, gauza onerako.

Musikari gehiagori ere gertatuko zaio hori.

Olatz Ingalaterran izan berri da. Bertako lagun batek



“Estudioko grabaketetan, erraza da lanean gehiegi sartzeagatik perspektiba galtzea.”

kontatu dionez, Peter Gabriel disko berria prestatzen dabil azken bi urteetan, nola bukatu erabaki ezinik. Ez naiz arraro bakarra... kar kar kar.

Zenbat kantu bilduko ditu lan berriak?

Hamar. Udazkenean argitaratuko dugu.

Erabaki al duzu izena?

Ospakizun gauean. Diskoko kantu baten titulua da. Gaztetan, ospakizun batean nengoela, goizaldeko ordu txikitetan izandako esperientzia batean du jatorria izenak. Bizitza osorako markatu ninduen pasadizo hark.

Zer gertatu zen?

Ospakizunek pisu handia dute gizartea antolatua dagoen eran: gaur jai egiten dugu arrazoi batengatik, eta bihar beste batengatik. Festa horiek eszenatoki bat izan ohi dute; gehienetan, otzandutako mundu bat. Arautua. Eta partaide bakoitzak, rol bat: kanpotik ezarria edo norberak aukeratua. Festa hartan, karga handia kendu nuen gainetik. Bestek ezarritako bideetan ibiltzeari laga eta nireari ekin nion.

Arindua hartu zenuen.

Naturalki gauza batzuk gustatzen zitzaizkidan, baina nire orduko baloreen arabera, ukatu egin behar nituen; besteak beste, gainean zigorraren begia genuelako zelatan. Gau hartan, motxila harrika bota nuen.

Zergatik, bada?

Jendearen rol horiek, munduan, tokian-tokian, kulturak edo erlijioak ezarritako baloreetatik ateratzen dira. Batek hau ona dela erabakitzen du, eta hura txarra. Beste batek, alderantziz.

(...)

Besteek gutaz duten ikuspegiak asko baldintzatzen gaitu. Sarri ezberdina izan ohi da barruan sentitzen duguna eta kanpora begira ematen dugun itxura. Ospakizuna metafora gisa erabiltzen dut, bizitza gure rola zein den asmatzen pasatzen dugula adierazteko.

Eta, zehazki, zer da aldarrikatzen duzuna?

Aipaturiko ospakizunen mundua, preso harturiko mentalitateen mundua da. Norberaren txaluparen leinari gogor eustea, besteek esango dutenaren beldurrik izan gabe. Hori da aldarrikatzen dudana. Gauzei bakoitzak bere begiekin so egitea, begi horiek jaio berriak izango balira bezala.

Disko berriko kantu batzuk zuzenekoetan jo dituzu azken urteetan.

Nire ustez, kontzertua da abesti baten ingurune naturala. Hor probatzen ditut kantuak, jendearengan eta nigan duten eragina ikusteko. Kantuei aldaketak edo bukaerak asmatzeko baliatzen ditut zuzenekoak; tarteka, funtzionatzen ez badute, kondentatzeko ere bai.

Ametsetan asmatua omen duzu disko berriko melodia bat.

Bai. Urtarrila asko gustatzen zait konposatzeko: neguko iluntasuna, itsas haizea, hotza... Ederra izaten da etxe giro goxoan sortzen jarduteko. Lan egun on bat amaituta, ohera sartu nintzen, eta amets hori izan nuen.



Ona?

Gozoa benetan. Hileta batean nengoen, zimitorioan, Orioko eliza bete-betea zegoelako. Arrantzale zaharrak eta Goiko Kaleko jendea nuen inguruan. Ilunabarra zen. Egoera maitekorra zen oso, isilik egon arren, denon arteko afektua handia baitzen. Halako batean, elizatik entzuten zen abestian nire ahotsa identifikatu nuen.

Esnatutakoan, gogoan zenuen melodia...

Hori da. Goizean, oharkabean, doinu bera nuen ezpainen-tan. Gosaldu ostean, estudiora igo eta eginda nituen testu batzuekin probatu nuen doinua. Ez zitzaidan bat ere ondo egokitzen. Azken folioa nuen aurrean, azken aukera. Letra aurrenekoan kantatu nuen osorik, goitik beheraino. Ikaragarria. Letra horrek, gainera, istorio berezia du atzean.

Urteekin musikariok kantuak sortzeko ofizioa, teknika, irabazten duzue; emozioa, ordea, mantentzen al da?

Disko berriko abesti batzuk emozio karga handia dute niretzat. Sorkuntza prozesuan, hunkidurak sentitu ditut. Kantuak etxean bakarrik kantatzerakoan, presente dudanean zer esaten ari naizen, kolpetik etortzen zait burura paisaia emozionala.

Eta zer ageri da paisaia horretan?

Umetan moilan ikusten nituen marinel hilak eta beren familien negarrak, Mendibeltzen edertasuna ibaia azpian duela, itsasadarra... Hori dena nirekin daramat aspalditik, nire memorian. Ez dit behin ere alde egiten.

“Disko berrian badira itsasaldeko lurrina duten kantu batzuk.”

Kresala itsatsi zaizu kantuetan, berriz ere.

Bai, disko berrian badira itsasaldeko lurrina duten kantuak. Nostalgiaren islatze bat dago hor.

Duela urte gutxi, bateria-jotzailea sartu zenuen taldean.

Disko berrian ere parte hartzen du. Nolatan?

Nik ez dut bateriaren kulturarik izan. *Ez dok amairu-*ko kideok beste erreferentziak genituen. Urteekin, nire kantuen instrumentazioak garaiz kanpo geratzen ari zirela ohartu nintzen. Nire kantaerak izandako garapena ez zetorren bat atzean mantentzen nuen molde musikarekin. Euskarri bat behar nuen ahotsari laguntzeko, eta bateriak egiten du sostengu lan hori. Beste haize bat ematen dio nire musikari.

Kantu berrien sorkuntzan, edo grabaketak egitean, zure taldeko musikariei utzi al diezu abestietan eskua sartzen?

Edo zuk esandakoa jotzen dute?

Askatasun handiagoa emango nieke, baina ez dakit hori egiten. Produktore lana nire gain hartzen dut. Zaila da



neurria hartzen. Kantuaren muinean sartzen saiatzen naiz, intuizioari segika. Abesti bat sortzen dudanean, kantu horrek esentzia bat du nire buruan. Grabaketetan, abestiari berezkotasun hori ez kentzen saiatzen naiz.

Azken urteetan, zein alor tekniko lantzen jardun zara nagusiki?

Nire ahotsa geroz eta grabeagoa da, eta horretara egokitzen ordu asko eman ditut. Nire kantaera, edo ahotsaren estetika, distantzia motzekoa da. Orain ez dut ozen kantatzeko ahotsik, gertu xuxurlatzekoa bai. Aste honetan bertan, lau kantu tonu erdi jaitsi ditut.

Diskoa autoproduzitu egingo duzue lehen aldiz. Nolatan aldaketa hori?

Arrazoi nagusi bakarra dago: obraren jabetza. Hamarkada askotan musikariok traketsak izan gara kontratuak eta halakoak sinatzerakoan. Kantuak ia opari eman ditugunaren sentsazioa dut.

Udazkenean, sortu berri duzuen zigilupean argitaratuko duzue *Ospakizun gauean*, ezta?

Bai, Olatz, Gratxina eta hiruron artean sortu dugu zigilua. Prozesuak baditu bere konplexutasunak; azken finean, enpresa bat sortzearen antzekoa baita prozesu burokratikoak.

Handia izango da lan karga.

Orain artean ezezagun zitzaizkigun lanak egitea tokatzen ari zaigu eta, beno, badira konplikazioak. Hala ere, esperientzia ona ari da izaten, alabarentzat batik bat. Gratxina musika promozioaren munduan sartu da ikaskideekin

batera, eta berak arduratuko dira gure promozio eta produkzio lanez. Berentzat aukera ona da hau, eskarmentua hartzeko.

Gizarteari kosta egiten zaio, sarri, musikarion lana ofizio gisa ikustea.

Badira jendartean gailendu diren ikuspegi primario batzuk, zeintzuk lana jarduera edo neke fisikoarekin lotzen duten, neke mental edo psikologikoa existituko ez balitz bezala. Batek tomateak erosten ditu azokan, elikatu behar duelako. Bada, guk, hain zuzen, janari espirituala egiten dugu jendearentzat.

Arima indartzeko.

Eta jendearentzat beharrezkoa da. Nire kontzertuetara sartzeko ilarak ikusten ditudanean, argi ikusten dut hori. 20 eurotik gora ordaintzen dira sarrerak. Zergatik? Jendeak esperientzia hori bizitzeko gogoia edo beharra duelako.

Digitalizazioak, kontsumismo basatiak, eta beste hainbat fenomenoak bultzatuta, gurpil zoroan bizi gara. Inoiz baino beharrezkoagoa al da janari espiritual hori?

Hori ez dut nik esango. Baina hainbeste estimuluz inguratuta bizi garenean, bada begi bistatik galdu ezin dugun gauza bat: gure pentsamendua. Kontzientzia. Hori da kultura. Benetakoa. Pertsonari hazten laguntzen diona. Hazkorra. Aipatu dituzun inertzia horiei erresistentzia puntu bat jarriko dien pentsamendua. Horretarako aktibatu behar dira jendearen gaitasun kreatiboak.

Jubilatuok, aspertzeko astirik ez!



Txomin Iribar
Jubilatuena Elkartearen Presidentea

Datorren irailean Andaluziara egingo dugu bidai, 17tik 25era. Interesatuak oraindik izena emateko garaiz dabilta, telefonoz deituz.

Orioko Jubilatuen Elkartetik –aiarrek ere presentzia eta partaidetza zabala dute bertan– urtean zehar ekintza ugari antolatzen ditugu. Esaterako, esku-lan tailerrak, bingoa, solasaldiak, mus txapelketa, irteerak, eta irailean egin ohi dugun zortzi bat eguneko bidai. Holandan, Frantzia, Portugalen edota Italian egon gara azken urteetan. Bidai horiek antolatzeko lan handia egiten da zuzendaritza batzordetik, guztia ondo atera dadin.

Bidaien harira, datorren irailean egingo dugun txangoaren berri eman nahi dut lerro hauen bitartez: datorren irailean 17tik 25era Andaluziara joango gara. Bederatzi egun eta zortzi gau igaroko ditugu Andaluzian barrena: Merida, Sevilla, Kordoba eta Granada bisitatuko ditugu. Dagoeneko 33 pertsonak eman dute izena, beraz, interesatuek nire mugikorrera deitu dezakete (Txomin: 626471423) informazio guztia jaso eta izena emateko eman beharreko urratsak azaltzeko.

San Pedro jaiak ate joka ditugula aprobetxatuz, esan behar dut urtero jaietan 70 urtetik gorakoentzat egiten den bazkaria aurtengo sanpedrotan ere egingo dela.

Argi dago Aiako eta Orioko jubilatuok ez daukagula aspertzeko denborarik. Eta aspertzeko dena, nahi duelako da! Jubilatuen guztiak dira ongietorriak gurean, eta zuzendaritza batzordeak antolatzen dituen makina bat ekintzatan parte hartzea animatzen zaituztet.

Guk zahartzaro aktiboa eta oparoa defendatzen dugu, horrenbeste urtez lan egin ondoren, merezi dugulako.



Ainara Lasa

Bolera

Gogoan dut 14 urte nituela, aste tartean ostirala iristeko desiratzen egoten nintzela. Egun hori behin ailegatuta, motxila eta eskolako traste guztiak etxean utzi, eta asteburuko zorroa prestatzen nuen *Maiale-nenera* asteburu pasa joateko.

Orioko paseoa pipak jaten, algaraz jositako ibilaldiak egin ohi genituen; ondoren, bazkaldu eta arratsalde partean, irrikaz itxaroten genuen unea iristen zen: *bolera* joatekoa. Oriotar, aiar eta inguruko bizilagun askoren topalekua zen hura. Eskailera horiek jaisteak nolabaiteko erreparoa ematen zuen hasieran.

Baina estutasunaren ostean, dibertsioa genuen ate joka, makina, karta, domino, billar eta askotariko forma eta formatuetan. A ze unek, bozgorailutik Su ta Gar, Eraso edo Negu Gorriaken azken *hit*-ek bellarriak astintzen zizkigutenekoak, litxarrerriak janez sikiera oin-orpoa mugiarazten zizkiguten kantak.

Azkar igaro ohi ziren larunbat eta igande arratsaldeak *bolera*. Ez nuen ezer gehiago behar, inondik inora; zorientasunaren gako hori baitzegoen: adiskidetasuna, giza harremanak, *inozentzia* berreskuraztin hori, ilusioa, eta solasaldi oparoak –tira, hamasei urterekin izan daitezkeen azaleko konbertsazioak–.

Agian baten bati irribarrea marrazten ari zaio une honetan, oroitzen horiek gogora ekarriz. Mugikorraren falta sumatu du inork? Nik ez behintzat.

Oliden anaiak: Kontxako 31 bandera

**Oroimenaren
kutxa**

Juanito Mirallesen bisita izan du Karkarak maiaztzean. Paper eta argazki bana ekarri zituen. Papereko hitzetan eta argazkian, gai bera: Inazio, Batista, Antonio eta Alejandro Oliden, Ortzaikako anaiei Kontxako banderak. Eskaera bat egin zigun Juanitok: ekarritakoa Karkaran argitaratzeko, Oliden anaientzako omenaldi moduan.

Gutxi izango dira arraunerako Juanitok hainako grina dutenak. Lana ere asko egin du Orioko arraunaren alde. Beraz, horrenbeste zor zaio Juanitori. Gainera, historia idatziak balio erantsia hartzen du jendearen parte hartze aktiboarekin. Hauek dira Mirallesen hitzak:

Lau anai arraunlari zein baino zein hobeak. 31 Kontxako bandera eskuratu dituzte lauen artean. Ignaciok 17 urte-ekin jokatu zuen Kontxan, 1935ean, eta galdu egin zuten, trainerua hondoratuta. 1942 eta 44an jokaturakoetan, ordea, irabazle izan ziren. Ignaciok, guztira: 2 Kontxa. Bautistak 1939, 40, 42 eta 44an Oriorekin irabazi zuen bandera. 50ean, Selección guipuzcoana de Esperanza de San Sebastian taldearekin; 51, 52, 53 eta 55ean, Oriorekin; 57an, agiñarrekin; 58an, berriz ere Oriorekin; 60an agiñarrekin; eta 64an, Oriorekin. Guztira: 13 Kontxa.

Alejandrok 1951, 52 eta 55ean, Oriorekin; 57an, agiñarrekin, eta 58an Oriorekin. 1953an, Campeonato de España traineriletan irabazi zuen, bertan min hartu eta urte horretan ezin izan zuen Donostian jokatu. Guztira: 5 Kontxa. Antoniok, aurreneko Kontxa Selección guipuzcoana de Esperanza de San Sebastian, 1950ean. Oriorekin; 51, 52, 53, 55, 58 eta 64an; agiñarrekin, 57 eta 60an; eta Lasarte Mitxelinekin, 69 eta 73an. Guztira: 11 Kontxa.



Goian, Inazio, eta behean, Batista, Antonio eta Alejandro.

Antoniok joan den otsailaren 8an 92 urte bete zituen. Anaietatik bizi den bakarra da. Aurrekoan harekin hizketan nengoela, hauxe esan zidan: oriotarron artean garai hartan ondo konpondu izan bagina, 20 urtez jarraian erraz irabaziko genuen Kontxako estropada.

Horraino Mirallesen hitzak. Orion badira bestelako abizena duten familia arraunlariak oparoak: Sarasua, Lizarralde, Uranga, Elizondo, Manterola, Solaberrieta, Etxeberria, Korta, Garmendia, Redondo, Puertas... Baina egia da Oliden anaiek hainako Kontxako bandera ez duela beste familia batek irabazi historia guztian, ezta urrutitik ere. As-

paldiko urteotan Orioko arraunzaleek ondo ikasia dute zenbat kostatzen den Kontxako bandera bat irabaztea. Oriok 32 ditu eskuratuak. Horietako bakarra ere ez da erraza izan, nekerik gabea; ahalegin eta esfortzu handiz irabaziak izan dira denak.

Mirallesen zerrendan garbi ikusten da Ortzaikako lau anaiek beste herri batzuentzat lortu zituztela bandera asko. Hori orduan, gaur egun bezala, ez zitzairen asko gus-tatzen zenbait herritarri. Eta garai haietan gordin-gordin agertu ziren arraun giroko batzuen grina okerraren ondorioak: haserreak, ezinikusiak, esamesak, irainak, boikota...

Baina Orioko patrioiak liburuko Antonio Olidene hitz hauekin bukatuko dugu gaurko oroitzapena: *Hala ere, mutil batzuentzat amua zen giro hura; beste inon ez zegoen grina eta zaletasuna ikusten zuten Orion eta horrek erak- rri egiten zituen, Oriorekin jokatzeko gogoia sortarazten.*

INAKI ITURAIN



Zarautz

Hileta Zerbitzuak

> Hilerrien kudeaketa

> Hileta zerbitzu orokorrak

> Zerbitzu iraunkorra



Harrespil

Hilerrri Zerbitzuak



Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxes: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net

“Gazteak hobeak dira teknikoki, baina lehiakorrak izaten ikasi behar dute”

Realean eta Bartzelonan bezala, Orioko Futbol Taldean ere izan da aurten agur berezirik. Besteak beste, 25 denboralditan aritu eta gero futbola utzi du Josu Solaberrietak. Apal-apal baina garbi hitz egin digu.

Josu Solaberrieta

Futbolaria

25 urte futboleant, gazterik hasi zinen horregatik?

Gure garaian Orioko Futbol Taldeak ez zuen talderik infantiletan, horregatik, Zarautzen egin nuen urtebete. Ostera, Oriora itzuli nintzen eta bertan egin nituen bost urte. Jubenil mailako azken urtea Añorgan jokatu nuen, *Liga Nacional* deitzen dioten kategorian.

Regional mailan Orion eta Zarautzen aritu ostean Lagun Onak taldean egin nituen lau urte, hirugarren mailan: bost edo sei jokalarik kenduta azpeitiarrak ziren denak, eta oso talde lehiakorra zen. Haiek izan ziren, kirol ikuspegitik, urterik onenak eta emankorrenak. Amaitzeko, azken sei-zazpi urteak Orioko Futbol Taldean egin ditut, horietatik hiru jokalarik eta entrenatzaile.

Zer moduzkoa izan da azken denboraldia?

Lehen jardunaldietan partida asko berdindu genituen, baina sentsazioak on samarrak ziren. Azkenean, sailkapenaren erdian amaitu dugu, ez gora eta ez behera. Ez dugu estutasunik pasa, baina beti nahi duzu zerbait gehiago. Etxean ondo aritu arren kanpoko partidetan kosta egin zaigu lehiakorrak izatea.

Entrenatzaile izan zinen hiru urtez.

Ez da samurra izango botak erantzi gabe taldearen ardura izatea?

Esperientzia hura gogoan, ostera ere aulkian esertzeko asmorik bala duzu?

Lan bikoitza da, aldi berean, entrenatzailea izan eta jokalaririk aritzea. Zure burua prestatzeaz gain beste 20-21 lagun daude erabakien zain. Aurrez, buruari mila buelta ematen dizkiozu: hamaikak bakarrik jokatzen dutelako. Gogorrak izan ziren hiru urte haiek. Momentuz, ez dut

entrenatzaile lanetan aritzeko asmorik.

Hainbeste urte futboleant arituta belaunaldi aldaketa ere bizi izan duzu: zu baino hamar urte zaharragoekin aritu zara, baita hamabost gazteagoekin ere. Zertan aldatu da futbola?

Askok. Ziur aski, gaur egungo gazteak, orokorrean, hobeak dira teknikoki, baina lehiakorrak izaten ikasi behar dute. Abilak dira baloia hanketan, baina amore ez ematen ikasi behar dute.



Gure hastapenetan lan fisikoa zen nagusi, eta ahal zena egiten genuen baloiarekin. Orain baloia darabilgu entrenamenduetan eta antzeman egiten da. Zelaiak ere eragina izan du: lehen hartxintzar zelaiak ziren nagusi, zelai irregularrak genituen han eta hemen. **Denboraldi amaierako partiduak ikusten izan gara Mendibeltzen. Talde, jokalarik eta zaletu asko biltzen da Orion futbolaren bueltan.**

Futbolak jende asko mugitzen du, herriz herri ikusten da hori. Orion, kadete mutilek eta neskek oso emaitza onak lortu dituzte aurten eta pozgarria da hori. Lan handia dago horren atzean. **Ez duzu kirola erabat utziko.** Ez. Futbola asko ikusten dut, edozein partidu, gainera. Umetan aitarekin hasi nintzen partidu mordera ikusten eta ez naiz asperitzen. Eta geldirik ez gara egongo:

korrika ere hasi naiz, badut lasterketa pare bat prestatzeko asmoa.

JON AGIRRESARIBE



ORIOKO FUTBOL TALDEKO KADETE NESKAK ETA MUTILAK MAILAZIGO DIRA

Mendibeltzen egindako lanak bere fruitua eman du, eta kadete mailan nesken eta mutilen taldeak Ohorezko Ligan izango dira datorren urtean. Hori gutxi balitz, infantil kategoriako bigarren taldeak Ohorezko mailan jokatzeko aukera esku artean du.

Nesken taldeak azken aurreko partidari lortu zuen Ohorezko ligara matematikoki igotzea. Larunbatean jokatutako azken jardunaldian, Jose Martin Alguacilen neskek 2-0 irabazi zieten Donostiako Intxaurri taldeari, eta bigarren postuan bukatu dute denboraldia. Herritar mordoxka hurbildu zen Mendibeltzera ligako azken partidaz gozatu eta igoera ospatzera.

Karkara.eus orainkarian jaso genituen Olatz Aizpurua jokalariairenekin adierazpenak: *Espero bezala joan da partida, Intxaurrikoak ondo ibili dira, baina gu ere bai. Ez genuen espero hain emaitza onak lortu eta sailkapenaren goiko muturrean ibiltzea. Datorren urtean ahal dugun onena ematen saiatuko gara.* Kadete mutilek ere lortu dute igoera: Kostkas taldearen atzetik bigarren postuan sailkatu dira bi puntura, eta datorren urtean Ohorezko ligan jokatu dute Aitor Rubioren eta Asier Garmendiaren mutilek. Bestalde, kadete mailako bigarren taldea laugarrena da bere multzoan.

Balioa eman behar zaie igoera horiei, Orioko futbol taldea oso gutxitan egon baita ohorezko mailan lehian. Hirugarren sailkapen taula batek ere pozen bat ekarri dezake Mendibeltzera: infantil txikiak bigarren dira izan dira ohorezko mailara igotzeko ligaxkan. Mailaz igotzeko aukerak dituzte. Horretarako, asteburuko partida irabazi behar dute.

Jubenil eta *regional preferente* mailako taldeek ere amaitu dute denboraldia. Lehenengoek igoera fasea jokatu dute, eta seigarren sailkatu dira. *Regional preferente* mailako taldeak, berriz, zazpigarren amaitu du sailkapenean.

Orioko XVII. Nazioarteko Estropadak

(2018/05/05)

Aulki mugikorreko nazioarteko lehia izan zen maiatzaren 5ean. Estropalariek ikuskizun bikaina eskaini zuten Orioko erriean. Uretatik kanpo ere, giroa itzela izan zen. Karkara.eus webgunean ikusgai daude estropadako argazki eta bideoak.





Agerre buru, ardi gazta onena



Pasa den maiatzean ospatu zen Madrilen *Gourmet Quesos* Espainiako gazta txapelketa. Bertan izan ziren Agerre Buru baserriko Jose Luis eta Jose Migel Odriozola anaiak, eta lehenengo postua lortu zuten ardi gazta erdi onduaren kategorian.

Hemen Ordiziako txapelketa dugun bezala, Espainiako gaztarik onenak joaten dira txapelketa horretara, dio Jose Migel Odriozolak. Zehazki, 101 gazta izan ziren lehian Madrilgo txapelketan. Ez zuten espero saria aiarrek: *Lehenengo aldia zen izena ematen genuena. Parte hartzeko, bi hilabete lehenago gazta pare bat bidali genuen Madrilera*. Handik hilabetera deitu zieten, finalera pasa zirela esanez, eta sei kilo gazta bidali zituzten orduan. Gazta horiek jaso ostean deitu zieten berriz Odriozola anaiei, gazta onena haiena zela esanez. *Astearte batean deitu zituzten, eta ostegunerako joan ginen Madrilera, saria jasotzera, dio Jose Migel Odriozolak*.

Askotariko gazta motak izan ziren Madrilen, eta hamabi kategoriatan banatu zituzten lehiaketan. Behi gazten hiru kategoriaz zeuden, ahuntzarenak beste hiru, eta ardiarenak, sei. Onduak, erdi-onduak, ketuak, nahasketak... Kategoriaz horietatik bat irabazi zuten aiarrek, baina guzti horietatik irabazle bakar bat ere hautatu zuten antolatzaileek: errautsekin nahasitako behi gazta biguna. Odriozolak dastatzeko aukera izan zuen, eta haren hitzetan, berritzailea zen.

Beraiek Madrilera bidalitako gazta abenduaren 31n egindakoa da. Lau hilabete pasatxo zituen, eta puntu politean zegoen. Ketu gabea zen, jateko modukoa, dio umorez gaztagileak. Madrilgoa, ordea, ez da gazta txapelketa batean nagusitzen diren lehen aldia. Irailean irabazi zuten Ordiziako gazta txapelketa ezaguna. Onena izateko sekretuak aitortu ditu Odriozolak: *Zortea izatea da % 80a, gaztak egiten onena den anaia beste % 10a, eta gainontzekoa, ardiak egunero larrera ateratzea*. Aurten elurragatik lau egunez atera izan ezin dituzten arren, garrantzizkotzat jotzen dute gaztagileek ardiak zelaira irteeta. *Aurten negu txarra egin du, baina gainontzean, beti ateratzen ditugu. Ilea ere urtean behin soilik mozten diegu, maiatzaren erdialde inguru horretan*. Ukuiluan dauden ardiek baino esne gutxiago ematen dutela iruditzen zaio Odriozolari, baina kalitate hobegoko esnea sortzen dutela dio. Duela 30 urte hasi ziren gazta egiten, eta esperientziak lagundu dien arren, «sistema bera» erabiltzen dutela aitortu dute anaiak.

Ordiziako txapelketaz gain, badituzte gehiago begiz jota Odriozolarrek. Gipuzkoako txapelketa eta Ordiziakoa dira uda pasa ondoren aurkeztuko diren bi lehiaketa nagusiak: Gipuzkoakoa irailaren lehenengo igandean, eta Ordiziakoa, egun gutxira. Gainontzean, herri txikitako txapelketetan ere izango dira.

MELANI CENDOYA - Psikologoa -

"Emakumeon beharretara egokitutako terapiekin egiten dut lan"



Melani Cendoya psikologoa kontsulta ireki berri du Orion, Ibai Ondo auzoko Islada zentroan. Zarauztarrak haur eta emakumeekin lan egitera bideratu du bere jarduera profesionala.

Zein formazio akademiko duzu?

Psikologian lizentziatua naiz. Gero, haurren garapenean espezializatu nintzen Bartzelonan egindako master batean. Osasun mental perinatalaren inguruko formazioa ere badut: haurdun, edo erditze eta erditze osteko fasean dauden emakumeei laguntza psikologiko espezifiko eskaintzen diet.

Kolonbian hasi zenuen ibilbide profesionala. Nolatan?

Krisi ekonomikoak bultzatuta ninduen atzerrira joateko erabakia hartze-
ra, nire belaunaldiko asko bezala. Proiektu sozial batean jardun nintzen lanean, Cartagena de Indias hirian, afro-indigena komunitateko kideekin. Esperientzia pertsonal ederra bizitzeaz gain, profesionalki eskarmentu handia hartu nuen.

Gaur egun, batik bat, emakumeekin egiten duzu lan?

Umeekin lan asko egindakoa naiz, eta ondorio batera iritsi nintzen: sarritan, gurasoek ez dute umeak hezteko behar beste laguntza. Zoritzarrez, nagusiki, amek sufritzen dute errefortzu falta hori,

zaintzaren zati handiena beren gain geratzen delako. Horregatik erabaki nuen nire lana emakumeengan zentratzea.

Emakumearen berezitasunak kontuan hartuko dituen terapiak garatzearen aldeko lanean diharduzu.

Emakumeok gure berezitasunak ditugu: nerabezaroan, sexualitatean, haurdunaldian, erditzean, menopausian...

Psikologia tradizionalak ez ditu kontuan hartu bereizgarri horiek.

Zer motako terapiak eskaintzen dituzu?

Batetik, errefortzua eskaintzen dut seme-alaben heziketarako. Amek haurrak hezten ari diren moduaren kontzientzia har dezaten saiatzen naiz. Beharrezkoa bada, beren jokatibideak zalantzan jartzen dizkiet, berriz birplanteatu ditzaten, umeekin harreman osasuntsu eta orekatuagoak izateko. Bestetik, egoera zail bat pasatzen ari diren emakumeekin egiten dut lan: dolua, mendekotasuna sortzen duten harreman afektibo-sexualak, haurdun geratzeko zailtasunak...

Eta metodoa zein da?

Lehen zita informatiboa da. Kontsultara datorren pertsonak bere egoera azaltzen dit. Nire terapiak lagun diezaiokeela ikusten badut, jarraian lanerako metodoa azaltzen diot.

Emakume batek nola jakin dezake

psikologo baten laguntza behar duen?

Beno, badira norberak identifikatu ditzakeen sintomak. Kontsultan ikusi dudana gatik, errazen antzeman daitezkeenak antsietatea eta tristura dira. Jende askok ondo laburbiltzen du esaldi honekin: *ez dakit zergatik, baina ezertarako gogorik eta kemenik gabe bilatzen dut nire burua...*

Sintoma gehiago ere badira?

Bai, noski: erruduntasun sentimenduak izatea, norbere buruarengan konfiantza falta, emozionalki leher eginda egotea, eguneroko plazer txiki-
kiekin gozatzeko zailtasuna izatea, loan eta apetituan aldaketak...

Zerbitzu espezifikoak:

- Errefortzua umeen heziketan
- Haurdun, erditze eta erditze osteko fasean laguntza
- Antsietate arazoak
- Harreman afektibo-sexual zailtan laguntza
- Terapia psikologikoa, haurdun geratzeko zailtasun egoerak bizitzean

Melani Cendoya

Islada · Aita Lertxundi 31, behea · 20810 Orío · Tel. 688 625 528 · info@mcendoya.com · www.mcendoya.com

Ospakizuna

Kandida Arrutik eta Joxe Mari Iribarrek 50 urte ezkontuta



Joxe Mari Iribar eta Kandida Arruti 1968ko maiatzaren 1ean ezkondu ziren. 50 urte beranduago elkarrekin eta pozik jarraitzen dute. Duela hiru aste familian ospatu zituzten urrezko ezteiak. Zorionak bikote!

Enplegua

Ekainaren 11 izango da azken eguna, udal kanpineko zuzendari lanpostua eta turismo, merkataritza eta ostalaritza departamenturako teknikari lanpostua betetzeko deialdietan izena emateko

Udalak bi lanpostu betetzeko deialdiak egin ditu maiatzean:

Udal kanpineko zuzendari lanpostua eta Turismo, merkataritza eta ostalaritza departamenturako teknikari lanpostua. Bi deialdien oinarriak webgunean daude, jendeak ikusteko, eta gaurko egunez argitaratu dira Estatuko Boletín Ofizialean. Izena emateko epea, beraz, gaur ireki da eta 2018ko ekainaren 11n bukatuko da (egun hori barne).

Deialdi horietakoren batean izena eman nahi duenak udal bulegoetara jo behar du, oinarrietan zehazten diren agiriak aurkezteko.

Bulego-orduak astelehenetik ostiralera dira, 08:30etik 14:30era.

Gizartea

Heriotzaren inguruan hitz egiteko topaketa maiatzaren 29an



Heriotzaren inguruan hitz egiteko topaketa antolatu du Mandalara taldeak hilaren 29rako (asteartea). Antilla hondartzako Barra jatetxean izango da hizketaldia, arratsaldeko 19:00etatik 20:30era.

Gasteizen ekainaren hasieran egingo den Nazioarteko Zainketa Aringarriaren Kongresuaren aurrekari gisa antolatu dituzte topaketak Espainiako hainbat txokotan, tartean, Orion. *Konfiantzazko eremua sortu eta heriotzaren inguruan libreki hitz egitea* da antolatzaileen helburua. Gaia hainbat arlotatik jorratuz, *gizarteko tabuak hautsi* eta heriotzari *ikusgarritasuna eman* nahi diete. Dolurako laguntza taldea izan ez arren, norberak bere esperientziak partekatu ditzakeela jakinarazi dute Mandalaratik. Horretarako, konfidentziaztasunean eta errespetuan oinarrituko dira. Doako topaketa izango da, baina parte hartzeko izena eman behar dela ohartarazi dute, telefono zenbaki honetan: 648 48 74 89.

EZETZ EZAGUTU?

Zozketa!

Akelarreren Aiako kontzerturako sarrerak ditugu




KARKARAK 5 sarrera bikoitza zozketa-tzen ditu Facebook bitartez -jada galdera zintzilik dago sare sozialean-, eta beste bost bikoitz beheko ebakina ongi betetzen dutenen artean. Facebook zein papereko erantzunak jasotzeko azken eguna maiatzaren 29a, asteartea, izango da. Erantzuna asmatzen dutenekin zozketa egin eta irabazleekin harremanetan jarriko da KARKARA .

Galdera: zein dira irudiko neskak?
Zorte on!

Soraluzeko rock taldeak kuttuna du Aiako plaza, eta 2017an itzulerako hiru kontzertu eman eta gero, Aian emango du hurrengoa, datorren larunbatean, ekainaren 2an. Gari eta Iñaki trikitilariek irekiko dute gaua 22:30ean, eta 00:00etan hasiko da Akelarreren emanaldia. Ondoren, DJ Bullek musika saioa emango du gaua borobiltzeko.

riek irekiko dute gaua 22:30ean, eta 00:00etan hasiko da Akelarreren emanaldia. Ondoren, DJ Bullek musika saioa emango du gaua borobiltzeko.



ZEIN DIRA IRUDI KO BI NESKAK?

Zure izen-abizenak:

Telefonoa:

Moztu ebakin hau eta sartu kultur etxeko harreran dagoen kaxan, maiatzaren 29a baino lehen. Zozketa hilaren 31ean egingo da.



Aia, kosta eta barnealdea eskura

Eskualdeko kostaldeko herriek Euskal Herriko turismo mapan beren lekua dute. Bada, ordea, Urola Kostan geroz eta **bisitari gehiago erakartzen duen udalerrri bat: Aia**. Herrian turismoak bizi duen egoera aztertu dugu bertako eragileekin eta zenbait turistarekin.



Mari Carmen Agirre Orortegi baserrian, gazta egiten.



New York-eko familia bat ukuiluan. Nancy, Josh eta Mathew.

“Natura, gastronomia, euskara, kultura eta herriko kaskoa dira Aiako turismo erakarpen gune nagusiak.”

“Bisitariek gaztaren elaborazio prozesu guztia ezagutzeko aukera dute. Harrituta geratzen dira.”

TESTUA: AINARA LASA

ARGAZKIAK: A.L./UKUE/ITURRARAN PARKETXEA

FITUR Madrilgo Nazioarteko Turismo Azokaren azken edizioan, Euskadi-Basque Country zigilupean ipinitako stand-ean, harrera bikaina izan zuen. Urola Kostako turismo katalogo berriak. Gipuzkoako kostaldea eta barnealdea sustatzeaz arduratzen den Explore San Sebastian Region bulegoko datuek berresten dute baieztapen hori. *Eta, Urola Kostatik, herri batek eman zuen atentzio berezia Madrilgo azokan, Aiak, dio Cristina Iturriagagoitiak, bulego horretako zuzendariak. Zarautz, Getaria, Orío, Zumaia... entzutetsuak dira dagoeneko Espainian; Aia, ordea, ezagutzeke dagoen altxor bat da askorentzat. Zeintzuk dira, baina, Aiak gordetzen dituen altxor preziatu horiek?*

Aiara iristen diren bisitariek hainbat faktorek erakarritza jotzen dute herrira eta inguruetara: natura –ibilbideak (GR-ak), Pagoetako Parke Naturala–; gastronomia –gaztandegiak, sagardotegiak, bertako produktuen txokoa herriko kooperatiban–; euskal kultura –herri kirolak, erromeria, euskara, jaiak–; Aiako herriak eskaintzen dituen baliabideak –igerilekua, frontoi estalia, haur parkeak, herriko panelen gidapean egin daitezke bisita libreak, pasealekua... –eta urte osoan zehar eskaintzen diren zerbitzuak (jaketxeak, landetxeak, tokiko produktuen salmenta zuzena) zein ekitaldiak, hala nola, Landare Berezien Azoka, San Asentzio Feria, Pagoetako Mendi Lasterketa, Andatza-Aiako igoera, Aristerrazuko erromeria edota San Silvestre Lasterketa.

Artzain eta gaztagile egun batez

Aiako herrirantz zoazela, erraz joaten dira begiak inguruko paraje eta larreetara. Giroa lagun bada, are eta distira bereziagoa hartzen dute zelai berdeek eta hosto granate horixkek udaberrian. Orortegi baserriko sarbidean, dena da bake. Isiltasuna da protagonista. Eta bertako lasaitasuna, bisitariarentzat sendagai miragarria. Hala berresten du etxeko jabeak, Mari Carmen Agirrek. *Urtean zehar izaten ditugun kanpotarrek eta Euskal Herrikoek, hemen go lasaitasuna goraiatzten dute –dio–; horregatik, askok errepikatzen dute esperientzia.*

Bi esparrutan uztartzen da esperientzia Orortegi baserrian. Bata, esperientzia gastronomikoa; bestea, atsedenaldia edo horren modan dagoen *wellness* zerbitzua.

Arlo gastronomikoari helduz, Mari Carmenek eta bere senarrak, Iñigo Eizagirrek, orain dela 28 urte baserria erosi eta, hutsetik hasita, behien eta ardien esplotazioan hasi ziren lanean. 25 urte dira Idiazabal Gazta jatorri-izendapenaren barnean daudela, *zalantzarik gabe*, beren *negozioa hazten lagundu zuen gertaera hark. Artzain Gazta elkartearen barruan egoteak abantaila dezente ekarri dizkigu: hasieratik prestakuntza saioak ematen zizkiguten, baita aholkularitza eta negozio ikuspegia txertatzen lagundu ere. Iñaki, Mari Carmen eta azken honen ahiz-*

pa arduratzen dira gaztaren elaborazioaren fase guztiez. Goizeko 06:00etan gazta egin eta lau orduko artisau-lanaren ostean, *packaging-a* edo gazta bilgarria prestatu eta banaketari ekiten diote. Euskal Herri osoan banatzen dute gazta. Orain, urrats bat eman nahi izan dute *Kosta Gastronomika* ekimenean sartuz. *Aurretik erresebatutako bisita gidatuak eskaintzen ditugu etxean. Gure kasuan ardi gazta ekoizten dugu eta etortzen diren turistek produkzioaren lekuko izateko aukera dute bisita gidatu horietan. Gazta zuzenean ere saltzen diegu,* dio Mari Carmen Agirrek.

Hain justu ere, New York-eko familia batekin izan zen KARKARA, aurretik hitzartutako bisita gidatu batean. Amak (Nancy Green) eta semeek (6 urteko Mathew, eta Josh, 11), harridura erakusten zuten bisita gidatuak iraun bitartean. *Donostian hartu dugu ostatu, eta gida batek Aiara etortzea gomendatu digu. Erabat txundituta gaude gaztaren elaborazioarekin, sekula ez dugu halakorik ikusi. Haurrek baserriko lanak ikustea eta halako inguruneaz gozatzea ez dago edonoren eskura. Plazer bat da hemen egotea.*

Landetxeari dagokionez, Irati Eizagirre (24), Mari Carmen eta Iñakiren alaba, egon ohi da bisitariari harre-
ra egiten eta etxeak dakartzan eguneroko lanen ardurak hartzen. *Sei logela ditugu guztira, eta udan bete egiten dira. Lan asko eskatzen du landetxe batek, baina hartzen ditugun bisitariak –kataluniarrak, madrildarrak eta, nazioarte mailan, estatubatuarrak eta frantsesak gailentzen dira – gure lana estimatzen dutela ikusteak ilusioa egiten du. Asteburuan eta zubietan ere betetzen da etxea. Familia asko etortzen dira behin baino gehiagotan, hemengo lasaitasunak erakarrita. Etxekoak dira guretzat dagoeneko,* dio Iratik.

Aiako ostalarien pertzepzioa aztergai

Erreportaje honetarako KARKARAK hainbat taberna eta jatetxetara jo du. Zenbaitzuk ez dute adierazpenik egin nahi izan, ez baitaude guztiz ados Aian jorratzen ari den turismo ereduarekin. Hainbat ahalegin egin ostean, Santiago auzoko Ashé jatetxeko nagusiek, Juanjo Roig eta Tati Guerrak, beren ikuspegia azaleratu dute: *Hau hilda dago, auzo honetako jaiek lehen jendetza erakartzen zuten; azken festetan, ordea, ez zen apenas girorik egon. Zerbait egin beharra dago. Turista gutxi etortzen da hona, eta uste dugu auzoak eta herriak orokorrean badituztela baliabide ugari turistak erakartzeko.*

Juanjo Roig-ek dioenez, *indarrak batu behar dira, herri-tarrak eta erakundeek bat egin eta bisitariak nola erakarri aztertu. Aiak bere horretan familiak hartzeko baliabideak ditu. Agian Donostiatik ez da bideratzen turismo fluxua honantz, eta hori arazo bat da gu denontzat.*

Pagoeta, bitxi preziatuena

Urtean zehar 35.000 bisitari inguru izaten ditu Pagoetako Parke Naturalak. *Bisitari hauek kontabilizatuta daudenak dira, gure eskuetatik pasatzen direnak edota ekin-*



Aiako erdigunea.



Irati Eizagirre, familiaren landetxeko sukaldean.



Ashé jatetxeko nagusiak, Juanjo Roig eta Tati Guerra.

35.000

bisitari. Pagoetako Parke Naturalak urtean zehar batz bestez izaten duen fluxu turistikoa 35.000 bisitariarena da.



Ikasle talde bat, Iturraran Parketxeko bisita gidatuan.



tzaren batean parte hartzen dutenak. Gurekin kontaktuan jarri gabekoak eta beren kontura mendi bueltaren bat egiten dutenak ez daude zenbatuta, dio Iturraran Parketxeko Amaia Agotek.

Bi mendi kontagailu *soilik* daude Pagoetan jarriak (Nebera baserriaren inguruan biak) eta 2017ko datuen arabera, 15.302 pasa ziren bi gune horietatik urte horretan. *Mendi ibilaldiak egiten dituztenen kopuru zehatza ateratzea ez da erraza, hainbat sarbide daudela kontuan eduki behar baita. Neberako jestuneaz gain, gutxienez beste lau sarbide kontatu hartu behar dira, argitu du Agotek.*

Azken urteetako bisitarien kontaketa aintzat hartuta, gorakada txiki bat izan dela ikusten dugu. 2015ean 33.739 bisitari pasa ziren, 2016an 35.273 eta 2017an 35.210.

Jatorriari dagokionez, bisitarien %55 Euskal Herrikoa da, %40 Espainiakoa eta %5 atzerrikoa. Euskal Herritarren artean, gipuzkoarrak nagusi dira eta jarraian bizkaitarrak. Espainiako bisitarien artean ugariak kataluniarak eta madrildarrak dira. Jarraian valentziarrak, eta azken urteotan, Gaztela-Mantxa, Gaztela eta Leon eta Andaluziatik datozenen igoera nabarmendu dela esan digute Parketxean.

Atzerritarren artean frantziarrak dira nagusi Iturrarango Parketxean. Dena dela, udara partean Ingalaterra, Estatu Batuak, Belgika eta Holandatik bisitari ugari hurbiltzen da Pagoetako Parke Naturalera.

Bertan eman dizkiguten datuen arabera, zehazki, 2017an Pagoetako baliabide turistikoek hartu zituzten bisitarien banaketa ondorengoa da: Parketxeak 11.439 bisitari hartu zituen (informazioa eskatu eta museoa bisitatu zuten horiek guztiek); Agorregiko Burdinola eta Errotak, 7.631; hezkuntza zentroetako ikasleak, 5.263; egun bateko txangoa egindako pertsonen kopurua 1.188koa izan zen guztira.

Baimendutako kirol jarduerak (mendi martxan, lasterketak...) 1.218 pertsona hartu zituzten; ekitaldiei da-

gokienez (Landare Berezien Azoka, Pagoeta Eguna...), harrera ona izan zuten, guztira 7.138 bisitarirekin.



KALEIDOSKOPIOA

Pagoetako *erakargarritasun* narbamenena, Iturrarango Parketxearen arduradunaren esanetan, *kaleidoskopio bat bezala izatea dela esan genezake. Distantzia txikian, bisitariak bisita aukera aniztasun handia du: Iturraran baserria, lorategi botanikoa, Iturrarango erlategi didaktikoa, Agorregiko burdinola eta errotak, orientazio zirkuituak, mendi ibilaldiak, paisaia ederra, itsasoa gertu... Gainera, ondo komunikatuta dago, Orioko eta Zarauzko autobideko ordainlekuak oso gertu baitaude.*

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

Iturrarango Parketxea
Laurgain Auzoa, 20809, Aia
Tel: 943 83 53 89

“Lanean bokazioz jardunez gero, nahigabe ikasten da ofizioa”

Cristina Salsamendi

Jostuna eta dendaria

Uda hasieran itxiko du Cristinak bere amak 60ko hamarkadan ireki zuen denda. Bizitza oihal, jostorraz eta arropa artean pasa ostean, erretiroa hartzeko ordua iritsi zaio. Garai zailak diren arren, komertzio txikiak beharrezkoak izaten jarraitzen dutela iritzi du.

IÑIGO GAITON

Dendan elkartu gara Cristinarekin. Mila lanetan dabil buru-belarri, erretiroa lasai hartu aurreko zereginak bukatu ezinda. Metroa eta guraizeak alboan lagata, gurekin esertzeko tartea hartu du. Hizketa biziarekin erantzun dizkigu egindako galderak.

Txikitatik izan duzu lotura jostorraz eta oihalekin.

Jostuna zen ama. Askotan ikusten nuen andregaien jantziak egiten. Etxea lanerako txiki geratu zitzaiola ikusita, lokala zabaldu zuten lanerako espazio gehiago izateko. Jostun lanez gain, arropa ekarri eta saltzen hasi ziren.

50 urte pasa dira ordutik.

Neska kozkorra nintzen garai hartan. Eskolatik ateratzean, dendara etortzen nintzen zuzenean, eta bertan ematen nituen arratsalde eta opor egunak. Orduak eta orduak: amari laguntzen, eskolako lanak egiten, jostatzen...

Eta dendakoa izan al zen zure lehen lana?

Bai. Eskola bukatu eta berehala. 19 urterekin, arropa eroatera joan nintzen Londresera, hura izan zen lehen lan bidaia. Indiako arropa zegoen modan, gogoan dut.

Gerora ere asko bidaiatu izan duzu arropa erosteko, ezta?

Alemania, Frantzia eta Italiara sarri joan izan naiz, arropa azoketara. Madril eta Bartzelonara ere bisita ugari egin ditut.

Dendariaz gain, jostun lanean ere aritu zara. Erraz ikasi al zenuen ofizioa?

Bai, nahikoa modu naturalean. Bokazioa izan dudala esan daiteke. Zerbait benetan gustatzen zaizunean, oharkabean ikasten duzu ofizioa. Orduak oharkabean pasa izan zaizkit lanean.

"Beste gauza batzuk egiteko garaia heldu zait: besteak beste, ondo margotzen ikasi nahi dut."

"Foru Aldundiaren arabera, komertzio txikiak sortzen du Gipuzkoako BGP-aren %20."



Dendatik etxera lan asko eramandakoa al zara?

Bai, besteak beste, nire ogibidea asko gustatu zaidalako. Brometan, sarritan errepikatu ohi dut esaldi hau: *ondoan, ohean lo nagoela josten dut...* kar kar kar. Goizeko bostetan esnatu izan naiz askotan, arropa edo konjuntobati buruzko ideia batekin. Opor gutxi izan ditut urte guzti hauetan; hori du asko gustatzen zaizun zerbaitetan lan egiteak.

Ardatzen kanpoko bezero asko izan dituzuela entzun izan da.

Dendako erosleen %60-70a izan dut herritik kanporakoa. Elgoibartik, adibidez, jende asko etorri izan zait. Eibar, Azkoitia, Deba, Zumaia, Usurbil eta beste hainbat lekutako bezeroak ere izan ditut.

Oriora, arropa erostera... Orain alderantziz gertatzen da.

Garaiak aldatu dira. Lehen, agian, kanpotik ekartzen nuen arropak estilo jakin bat zuen, eta horren bila etortzen zen jendea. Dendariak gain jostuna izateak ere erakarri izan ditu bezeroak.

Denda txiki asko itxi dira herrian azken urteotan.

Egoerak hobera egingo duen esperantza dut. Komertzio txikia beharrezkoa da. Foru Aldundiaren arabera, komertzio txikiak sortzen du Gipuzkoako BPG-aren %20. Lanpostu asko dira. Adituen iritziz, orain arte industria garatzera baliabide asko bideratu diren bezala, orain komertzio txikiari lagundu behar zaio.

Arkupe elkarteko sortzaileetako bat izan zinen, eta presidentea zara gaur egun. Orain Herri Plataforman ere parte hartzen duzu. Zer motibatuta?

Orietarra naiz, dendari edo jostunaren aurretik. Oriori, herriari, onena opa diot, eta horrek bultzatzen nau batean

eta bestean jardutera. Taldean lan egiteak herriarentzat onurak bakarrik sortzen dituela pentsatzen dut.

Ekainean itxiko duzu denda, urte askoren ostean.

Beste gauza batzuk egiteko garaia heldu zait: besteak beste, ondo margotzen ikasi nahi dut. Duela bospasei urtetik Donostiara joaten naiz pintatzera, eta tarte honetan, gauza bat ikasi dut: ez dakidala pintura munduaz ezer. Jubilatzean, hutsetik ikasten hasiko naiz eskolaren batean.

Jose Ramon, aita, margolari fina zen. Berarengandik al datorkizu afizioa?

Ez dakit zer erantzun. Aitak Orion egin zuen azken erakusketan nire koadro bat jarri genuen ikusgai. Oso berezia izan zen niretzat. Jasota ditut aitak hil baino astebete lehenago egindako marrazkiak. Azken momentura arte margotu zuen.

Zer ematen dizu pinturak?

Gozamena. Etxean margotzen jarduten naizenean, musika jartzen dut, eta tarteka, pintzelak eskuan ditudala dantzan ere hasten naiz... kar kar kar Nire ofizioa izan denarekin lotura duela ere esan dezaket: koloreak, testurak, formak... Dena sar daiteke sorkuntzan.



ZERBITZU BERRIA
Bizikletak jaso eta etxera eraman
Zarautz-Getaia-Orio

943 835 980

Zarautzen Mugitzen gara
Iturrilun plaza,5 - 20800 Zarautz
www.2gurpil.com - bigurpil@hotmail.com



Alustiza Autobusak
Alustiza Bidaiak S.L.

Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93/ 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01- 656 78 29 99

TAILER MEKANIKOA AUTO LAN



Pelotari 5, Orio
943 83 00 34

Zure Konfidantzazko
Gertuko Tailerra



IGLESIAS
SARRAILAGILEAK

24 ORDUKO ZERBITZUA

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesiascerrajerros@yahoo.es
ZOBIO ORIO

- ATEAK IREKITZEN DITUGU
- SARRAILA-ZILINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IXTEKO MALGUKIEN ALDAKETA
- KOMUNITATEENTZAKO ZERBITZUA

Azku



Tf: 943 130 438

Azku



Seguros Bilbao

Tel: 943 111 600
688 714 869

Santi Barranco
Orioko ordezkaria

Endaia Enparantza, 1
20810 Orio (Gipuzkoa)

e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com



Zaragueta
Herri Eskola Orio

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezuntza.net



Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

KORTABERRI
arotz lanak

kortaberri.arotza@hotmail.com

665 70 33 47



EKILORE
GARBIKETAK

626417841
ekilore@outlook.es



Desatascos
LASTER

24 ORDUKO ZERBITZUA

688 886 536

Hodi libratuta.
- Garbiketarak presio handiko urarekin.
- Sanaemendu sareen mantenu prebentiboa.
- Hodien, isuribideen eta estolderiaren ikuskatzea, kamerekin.
- Uholde urak ateratzea.
- Ezkutuko kutsatzen detektazioa.

Sagar erreka 21-A - 20590 Soraluze - Abaramendi bajo 3-20810 Orio - Tel: 943 751 431
desatascos@desatascoslaster.com - www.desatascoslaster.com

Maidar Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.
Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

oinarri
PODOLOGIA ZENTROA

PERTSIANAK

A K O **M A Z**



Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

ZUR EDER
muebles tapicería altzariak

zureder@zureder.com
943 13 49 21

Polígono Ubegun Nº 1, Puerta 8
20810, Aia-Orio

AUKERA!
50%
- ERAINOKO
DESKONTUA
KOLTZOIETAN



ZARAGUETA HERRI ESKOLA

“Duela 42 urte hasi ginen kanpinera etortzen”

Pilar Arenal eta Juanjo Landa

Kanpineko turistak

Urte dezente dira Orioko kanpina ireki zutela. Hasieratik hona aldaketa asko izan dituen arren, badaude urtero-urtero etortzen diren turistak. Horregatik, 5. mailakook, horietako batzuk ezagutzera eta elkarriketatzera hurbildu gara kanpinera. Bertan bikote bat aurkitu dugu.

Nola duzue izena?

Pilar eta Juanjo.

Nongoak zarete?

Tolosa ondoan dagoen herri batekoak, Ibarrakoak.

Noiztik etortzen zarete Orioko kanpinera?

Aspalditik. Badira 42-42 urte Orioko kanpinera etortzen hasi ginela.

Gustura al zaudete hemen?

Oso; oso gustura!

Zergatik?

P: Hemen jende jatorra dagoelako, eta arraunean onenak direlako; bai, ezta?

J: Baita ere bilobak Orion ditugulako.

Zer duzue herrian gustukoena?

P: Hondartza. Nire herrian ez dago, eta asko gustatzen zait.

J: Bertan dugun giroa, koadrila. Ni eguerdiro eta arratsaldero elkartzen



naiz koadrilarekin.

Eta gutxien gustatzen zaizuen?

Ezer ez. Ez dugu okerrik ikusten.

Zenbat denborarako etortzen zarete?

Zortzi hilabeterako. Neguan ezin dugu etorri, kanpaina itxita dagoelako.

Beste kanpin batzuetan egon al zarete edo egoten al zarete?

Gaztetan egon izan gara, baina orain jada, ez.

Orioko hondartza gustuko dugu. Jendea hemen jatorra da eta arraunean onenak dira!



Maxe Zinkunegi

Gazteon zainketa

Zenbat gazte egoten da txutxe-denden parean eserita, mugikorrekin, arratsaldea pasatzen? Jakingo al dute ohitura hori kentzen? Bai, batzuk lortuko dute, baina beste askok ez.

Gazteok badakigu osasungarria zer den, baina gazteak garenez, gurasoek muga jarri beharko ligukete, esaterako, paga ematerakoan kontuan hartuz zertan gastatu, ez utziz egunero litxarrerria jaten... Batzuk kontrolatzen dira, baina beste asko ez, eta behin ohitura hartuta, zaila da kentzen.

Bestetik, arrisku handia dugu konturatu gabe arrats osoa pantaila bati begira pasatzeko. Gurasoek esan behar ligukete horrelako tresnak alde batera utzi eta kirola egiteko. Denok dugu zaindu beharra heldu izatera ondo iristeko.

Beraz, gurasoen esku dago gazteon osasuna: gazte askok oraindik ez dakienez bere burua kontrolatzen, neurriak jarri behar zaizkigu. Zaindu.

Sinergia | fisioterapia & ikerkuntza

· Lesioak: bihurdurak, tendinitisak, zaintiratuak, kontrakturak, hanka handituak, artrosia, kirurgia esteko birgaitzea, bizkar hezurteko arazoak, arnas gaixotasunak haur eta heduetan, lesio neurologikoak, haurdunaldirako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errekuperazioa.

· Tratamenduak: terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, arnas fisioterapia, kinesotaping-o, pilates, abdominaletako gimnasia hipopresioba (GAH), REDCORD.



943 13 05 77
685 71 85 95

Ibai Ondo 1, Bajo - Orio
sinergiafisioterapia.com



Orioko Euskaraldiko hamalaukoa aurkeztuko da ekainaren 2an

Jabier Zabaleta

Euskara teknikaria

Euskaraldiaren Euskal Herriko hamaikakoa aurkeztu zuten apirilaren 18an Bilbon; ekainaren 2an aurkeztuko da Orioko *hamalaukoa* Herriko Plazan.

Euskal Herriko hamaikakoa osatzen duten lagunek erabaki dute parte hartuko dutela EUSKARALDIA: 11 EGUN EUSKARAZ ekimenean; batzuek ahobizi gisa eta beste batzuek belarriprest gisa. Apirilaren 18an Bilbon egin zuten agerraldi publikoan jendea animatu zuten azaroaren 23tik abenduaren 3ra Euskal Herri osoan egingo den ekimenean parte hartzera. Euskaraldiaren antolatzaileek irekita utzi dute tokian toki beste hamai-kako batzuk sortzeko aukera, eta herri batzuetan da-goeneko hasita daude tokiko hamaikako horiek osatzen (Zarautzek, esaterako, apirilaren 22an aurkeztu zuen be-rea). Tokiko hamaikako horien funtzioa izango da inguru hurbileko jendea animatzea Euskaraldian parte hartzera eta eredu eta akuilu izatea herritarrentzat. Erantzuna erantzuna erantzuna bigarren parrafoa, testua bande-ran doa, ez justifikatuta erantzuna erantzuna, testua banbanderan doa, ez justifikatuta erantzuna erantzuna, testua banderan doa, ez justifikatuta.

Orion, hamalau!

Orion Euskaraldia antolatzen ari den lantaldeak erabaki du ekimenaren aurpegia osatuko dutenen taldea ez iza-tea hamaika lagunekoa, baizik-eta hamalaukoa. Traineru bat osatzea, alegia, patroiz eta guzti. Orioko hamalaukoa herriko hamalau lagunek osatuko dute, Euskaraldian ahobizi edo belarriprest izatea era-baki dutenak. Beren erabaki hori publiko eginez, gaine-rako herritarrak animatuko dituzte parte hartzera eta,

nolabait, ekimenaren enbaxadore eta bistako aurpegia izango dira Orion, Euskaraldiaren berri zabalduz oriotar-ren artean.

Hamalaukoaren kide bakoitzak, gainera, bere hamalau-ko propioa osatuko du ondoren. Hau da: bakoitzak beste hamalau pertsona konbentzituko ditu Euskaraldian parte hartzeko, ahobizi ala belarriprest gisa, nahiz eta bigarren zerrenda hori ez den publiko egingo.

Ekainaren 2an, aurkezpena

Arraun Elkarteak ekainaren hasieran urtero antolatzen duen Garagardo Azoka baliatuko du Orioko Euskaral-diaren lantaldeak hamalaukoaren aurkezpen ekitaldia egiteko. Herriko Plazan izango da, ekainaren 2an, larun-batarekin, 13:00etan hasita, eta bertan jakinaraziko da nortzuk osatzen duten Orioko Euskaraldiaren hamalau-koa.

Prestakuntza-saioa

Orioko Euskaraldiaren lantaldeko lagunek, bestalde, lau orduko prestakuntza-saioa egingo dute larunbat horre-tan bertan, ekainaren 2an, goizez, hizkuntza-ohiturak aldatzeko prozesuei buruz. Prestakuntza-saioa Ahize-AEK-k bideratuko du eta horren kostuak Orioko Udalak hartu ditu bere gain.



11 EGUN EUSKARAZ

AZAROAREN 23TIK ABENDUAREN 3RA*



IZAN BELARRIPREST!

BELARRIPREST txapa soinean daramanak adierazten du babesa eman nahi diola euskaraz egin nahi duenari. Gai da euskara ulertzeko eta euskaraz egin diezaioten nahi du, nahiz eta, beharbada, ez den gauza izango beti euskaraz erantzuteko.

Belarriprest izateak ez du zerikusirik euskaraz hitz egiteko gaitasunarekin, baizik-eta jokaerarekin! Dakienari zuri euskaraz hitz egiteko gonbita egin nahi diozu? Izan belarriprest!



IZAN AHOBIZI!

AHOBIZI txapa soinean daramanak adierazten du euskara gehiago erabili nahi duela eta euskaraz bizi nahi duela. Euskaraz egiten die beti beste euskaldunei eta euskara ulertzen dutenei, eta euskarari eusten dio haiek gaztelaniaz erantzuten diotenean ere. Ezagutzen ez dituenekin lehen hitza euskaraz egiten du eta, ulertzen baldin badute, hortik aurrerakoak ere bai.

Ahobizi izateak ez du zerikusirik euskaraz hitz egiteko gaitasunarekin, baizik-eta jokaerarekin! Ahal duzun guztietan euskara erabiltzeko prest? Izan ahobizi!

* Izen-ematea irailaren 20tik aurrera

Luiziak kanpinean eragindako kalteei konponbide bila



90 tona inguru harri erori ziren kanpinera apirilean. KARKARA

Apirilaren 12an, goizaldeko 13:00aldera, luizia izan zen Orioko Kanpinean.

Talaimendiren azpialdean dagoen gune batetik, labarra hautsi harri handiak erori zen kanpinera. Ez zen kalte pertsonal eta materialik izan, harria segurtasun hesiak geratu zuelako.

Neguko euriteen eragina

Erori den harri klaseak poro asko ditu. Pasa den neguan bota duen euri pilaren ondorioz, labarrak ur asko pilatu eta karga handia hartu du. Dirudenez, hori izan da luizia eragin duen faktore nagusia.

Harriak 30 metroko altueratik erori ziren, eta 90. hamarkadan jarritako segurtasun hesiak geratu zituen. Kolpearen ondorioz, segurtasun hesia kaltetua geratu zen.

Segurtasunagatik, bezeroak kanpoan

Esan bezala, harriek ez zuten kalte pertsonalik eragin, baina ezarri duten segurtasun perimetroagatik, bezero batzuk ezingo dute kanpinean ostatu hartu.

Segurtasun perimetro honen barruan dauden bezeroak, finkoak dira; alegia, duela urte askotatik, denboraldi osoa ematen dute kanpinean. Guztira, hamabost *mobilhome* edo karabanetako jabeek eragin die segurtasun neurri honek.

Konponbide bila

Udaleko eta kanpineko ordezkariak ari dira gaiari konponbidea bilatzeko lanetan.

Momentuz, harriak botatako hesia berriro altxako dute, berriz bere funtzioa egiteko baldintzak betetzen dituen ikusteko.

Bestalde, oraindik ez dakite bezeroei kanpinean ostatu hartzea eragozten dien segurtasun neurria noiz arte izango duten indarrean.

"Harriak 30 metroko altueratik erori ziren, eta 90ko hamarkadan jarritako segurtasun hesiak geratu zituen."

"Udal talde guztiok luiziaren aurrean hartu beharreko neurriak adostu ditugu"

Pasa den apirilaren 11etik 12ra doan gauean Orioko Kanpinean lur jauzi bat izan zen. Ekialdeko labarretik, 30 metro inguruko altuera batetik, 28 tona inguruko bi harri handi eta tamaina txikiagoko beste batzuk erori ziren. Kalkulatu da, guztira, 90 harri tona inguru eroriko zirela. 2018ko otsailan ere, nahiz eta txikiagoa izan, mendi magal berdinean, lur jauzi bat eman zen. Aipatu beharra dago, kalte materialak txikiak izan direla. Izan ere 90eko hamarkadan, mendi magalean horretan bertan hesi estatiko bat jarri zen lur jauziei eusteko. Ondo bete du, ondorioz, hesi honek bere lana. Hala ere, luizia gertatu ostean labarra nola gelditu den ikusita, ezinbestekoa izango da segurtasuna bermatzeko hainbat lan osagarri egitea.

1.-Segurtasuna bermatzeko neurriak:

- Segurtasun eremu bat finkatu.
- Eremu horretatik pasatzen den atzeko errepidea itxi.
- Neurri berezi hauek mantentzea, eremuak gutxieneko segurtasun baldintzak bermatu bitartean.

2.-Luizia izandako eremuaren inguruko neurriak:

- Harriak txikitu eta kendu
- Hesi estatikoan jasotako kalteak berregin, funtzionalitatea mantendu dezan.

3. Etorkizunean gertatu daitezken lur jauzi berriak ekiditeko neurriak:

- Mendi magalaren azterketa geologiko bat egin.
- Goiko aldean maila buloidun finko bat jartzea aztertu.
- Beheko eremuan dagoen hesi estatikoa gaitasun handiago duen beste hesi dinamiko batez ordezkatzeko aztertu.

Udala osatzen dugun talde guztiek landu beharreko neurriak hauek direla adostuta, dagoeneko hasiak dira konponketa lanak. Astebete barru, aipatutako barrera finkoa konponduta egongo da. Hala ere, labarraren goialdea oraindik ere gune arriskutsua denez, babes neurriak eta babestutako gunea zenbat murriztu daitezken ezinezkoa da jakitea.

Jakitun gara, honek guztiak, eragin handia sortu diela kaltetuak diren 15 bezero finkoei. Orioko Udaleko kide garen udal talde guztiak oso kontutan hartu ditugu eta hartzen ari gara, lur jauzi honek bezero hauei sortu dien kaltea.

Ahal bezain azkarren konpontzeko ahaleginetan gabilta erantzun egoki bat eman ahal izateko. Orioko Udalak oso argi du gaia hau sentsibilitate handikoa dela beraientzat. Gure artean urte asko daramatzaten bezeroak dira eta udalarentzat garrantzitsua da erantzun egokia bilatzea. Lehenengo helburua segurtasuna bermatzea izanik, momentuz hau ziurtatu arte ezin dugu baimendu beren bungalow edo karabanetara itzultzea eta honek suposatzen duenaz jabetzen gara.

Horregatik, kasu hauetarako konpentsazio neurriak hartzea erabaki dugu udal talde guztiok. Egoera honek luzera joko balu, beste neurri batzuk hartzea ere aztertzen gabilta.

Gure lehenetasuna lur jauzia lehen bailen konpontzea izan da beti, gure bezero guztiei, kanpineko egunero martxa eskaini ahal izateko. Helburu hori izanik, teknikoki egokien izango diren erantzunak bideratzen joango gara, beti ere, segurtasuna bermatuz.

*LOURDES SALSAMENDI, TURISMOKO ZINEGOTZIA (EAJ-PNV),
ETA BATZORDE KIDEAK.:*

*GOTZON IGOA (EH BILDU),
IÑIGO ARRUTI (ORAIN)
ANA PRIEDE (PSE-EE)*



AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Alokairua

• Etxea alokagai Orio erdigunean, 4 logela ditu eta oso argitsua da. Epe-mugaturako izango da. Tf: 647576763

• Bikote oriotarra alokatzeko etxe baten bila. Tf: 697933663

• Orioko Kalakari Taberna alokagai. Tf: 620118830

Salgai

• Duplex-a arrantzale kalean. 3 logela, 2 komun, terraza eta garaje txikia. Goiko solairura igotzeko eskailera batzuk ditu. 15 urteko etxebizitza. 395.000€ Tf: 648820190

• Aiako aurtengo intxaurreak salgai: 4 kilo 22€, tamaina onekoak, etxera eramanda. Pati deitu: 943132131 edota 634410993

• Etxebizitza salgai Aiako Santio auzoan. 91m2, egongela zabala, 3 gela, 2 bainugela, garajea eta 2 trasteleku. Erabili gabea, altzaririk gabea. 172,081,82€ Tf: 660455530 -Gorka-

Lan eskaera

• Mutil gaztea lan bila dabil adineko jende

zaintzeko. Orduka egingo nuke lan. Erizaintza eta garbiketa ezagutza eta tituluak ditut. Tf: 603644555

• Rosa lan bila, etxetik kanpo helduen zaintzan. Esperientzia eta paperak ditut. Tf: 663117579

• Ume zaintzan zein etxe-ko lanak egiteko lan bila dabilen 29 urteko neska euskalduna naiz. Adin desberdinetako haurrekin hezitzaile eta irakasle bezala esperientzia dut. Tf: 638730544

• Lan bila nabil, etxe barnean eta kanpoan egiteko: haur eta helduen zaintzan, ospitalean konpainia egiten... Gazteleraz, arabieraz, eta euskaraz zerbait dakit. Tf: 612488307a.

• 16-17 urteko mutil oritar bat lan bila. Udan, umeak zaintzeko prest. Urte osoan zehar, klase partikularrak LH6-tik beherako haurrei. Tf: 600321937

• **Hezkuntza**

• Ingeleseko saioak. Arratsaldetan uztailan eta abuztuan. Bertako irakasle tituladunak Taldean eta bakarka. Prezioak kontsultagai. Gareth: 627389285 edo

garethross@msn.com; Jenny: 697258509 (jensaross@yahoo.com)

Lan eskaintza

• Aiako Kanua jatetxeak, parrileroa eta zerbitzaria behar ditu. Ainhoagatik galdetu. Tf: 637992924

ITSASOA

	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	06:10 eta 18:26	12:11 eta ____	○
02	06:45 eta 19:00	0:29 eta 12:45	○
03	07:19 eta 19:34	01:06 eta 13:20	○
04	07:55 eta 20:10	01:43 eta 13:57	○
05	08:34 eta 20:51	02:24 eta 14:37	○
06	09:19 eta 21:40	03:09 eta 15:24	○
07	10:17 eta 22:43	04:03 eta 16:22	○
08	11:31 eta 23:58	05:09 eta 17:32	○
09	12:49 eta ____	06:21 eta 18:45	○
10	01:11 eta 13:53	07:26 eta 19:48	○
11	02:10 eta 14:43	08:20 eta 20:39	○
12	02:58 eta 15:25	09:06 eta 21:24	○
13	03:41 eta 16:05	09:47 eta 22:05	○
14	04:21 eta 16:44	10:28 eta 22:47	○
15	05:02 eta 17:23	11:08 eta 23:28	○
16	05:44 eta 18:04	11:49 eta ____	○
17	06:27 eta 18:47	01:12 eta 12:32	○
18	07:13 eta 19:33	0:57 eta 13:17	○
19	09:02 eta 20:24	01:46 eta 14:06	○
20	09:58 eta 21:22	02:40 eta 15:01	○
21	10:03 eta 22:30	03:41 eta 16:04	○
22	11:18 eta 23:45	04:50 eta 17:15	○
23	12:37 eta ____	06:06 eta 19:32	○
24	01:03 eta 13:48	07:18 eta 19:42	○
25	02:10 eta 14:46	08:20 eta 20:42	○
26	03:06 eta 15:35	09:12 eta 21:32	○
27	03:53 eta 16:17	09:55 eta 22:15	○
28	04:35 eta 16:54	10:34 eta 22:54	○
29	05:13 eta 17:29	11:10 eta 23:32	○
30	05:48 eta 18:03	11:45 eta ____	○
31	06:22 eta 18:37	0:08 eta 12:20	○

ZAINTZAKO BOTIKAK

- EKAINA:
- Iean, Esparza.
 - 2an eta 3an, Etxeberria.
 - 4ean, Izpizua
 - 5ean, Zulaika
 - 6an, Iriarte
 - 7an, Lasa
 - 8an, Gaminde
 - 9an eta 10ean, Larrañaga
 - 11ean, Lasa
 - 12an, Iriarte
 - 13an, Esparza
 - 14an, Iturria
 - 15ean, Larrañaga
 - 16an eta 17an, Gaminde
 - 18an, Iriarte
 - 19an, Esparza
 - 20an, Gaminde
 - 21ean eta 22an, Lasa
 - 23an eta 24ean, Iturria
 - 25etik 28ra, Lasa
 - 29an, Gaminde
 - 30ean, Gallo
- Azaldegi:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- Esparza:** Santuiturri plaza, 5-6. 943 50 47 83 Zarautz
- Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
- G. Artiñano:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAK



943 83 05 37 / 943 83 27 47

HERRATEGIA
PATXI OLIDEN
USDRITEGIA

Hemengo haragia.
Etxeko produktuak: tripaki, odolki, txekorra, txorizo, kroketak...

PATXI OLIDEN

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

KOMIKIA



Orio

Musika

- Ekainaren 8an, Rafa Ruedaren kontzertua, 22:00etan kultur etxean.
- Ekainaren 18tik 22ra, kontzertu pedagogikoak kultur etxean.

Zinema

- Maiatzaren 25ean, ostiralean, film proiektzioak Talaimendik antolatuta, 21:30ean.

Kultur etxea

- Ekainaren 26tik aurrera, udarako ordutegia izango da, goizeko 09:00etatik 13:00ak arte.

Bingoa

- Maiatzaren 30ean, ekainaren 6an eta 13an Zaharren babeslekukoak bingoan jardungo dira kultur etxeko

areto nagusian.

San Pedro jaiak

- Ekainaren 28tik uztailaren 1era, sanpedroak.

Ingurumena

- Maiatzaren 26ean, hondartza garbiketa 10:30ean. Ondoren, hamaiketakoa.

Aia

Musika

- Ekainaren 2an, Akelarren kontzertua.

Erromeria Andatza auzoan

- Maiatzaren 27an, erromeria egingo da Aristerrazun Asier Gozategi eta Julen Alonso trikitilariekin.

Podologia

- Ekainaren 23an podologoarekin kontsulta, sendagilearen etxean. Aurrez ordua hartzeko: 943 13 11 44

Kontrazala

Argazkia: Beñat Gereka

azku
karrozeria



Ubegun industrialdea, 7
20809 Aia-Orio
Tf/fax: 943 83 51 86
carroceriasazkue@hotmail.com

